


Larrabetzuko historia I: hiribildua eta burdinolak



o.- Sarrera

Partikularretik unibertsalera

Larrabetzuko historia: hiribildua eta burdinolak

Larrabetzuko historiaren zatitxo bat izango dut aztergai, XIV. mendetik XVI.era bitartekoa, hain zuzen ere. Ez dago zalantzarik: herri txikien historiak badu zeresana handien historian. Horregatik hartu ditut Larrabetzuko gertaera historikoak nire lan-proposamenaren oinarritzat. Bestalde, nire lanak Euskal Herriko beste herri txiki batzuetako ikastetxeetarako eredu moduan balioko duelakoan ekin diot zereginari.

Edgar Morin soziologo eta filosofo frantziarrak dioenez (Les sept savoirs nécessaires à l'éducation du futur. Seuil, Paris, 2000), partikularra eta unibertsala, batasuna eta aniztasuna, kontzeptu bereizezinak dira:

“Hezkuntzak kontu handia izan behar du giza espeziearen batasunaren ideiak giza aniztasunarena ez baztertzeko, eta aniztasunaren ideiak ez dezan batasunarena baztertu (...) Kulturen arteko aniztasuna nabarmentzen dutenek giza batasuna gutxiesteko edo baztertzeko joera dute, eta giza batasuna nabarmentzen dutenek bigarren mailan jartzen dute kultura-aniztasuna. Komenigarria litzateke aniztasuna ziurtatzen eta aniztasuna bultzatzen.

duen batasuna sortzea, hau da, aniztasuna batasunean sartzea. Aniztasunaren eta batasunaren fenomeno bikoitza oso garrantzitsua da. Kultura giza nortasunaren euskarri da; kultura, gizarte nortasunen euskarri (...). Horrenbestez, kultura beti egoten da kulturetan, baina kulturaz hitz egin dezakegu kulturen ekarpenei esker” (egileak azpimarratua).

Kontuan izan behar dugu ikaslea ez dela isolatuta hazten, jaiotzen denetik kulturalki antolatutako testuinguru batean bizi baita. Gizarteratzea komunitate baten kultura eta historia barneratzeko prozesua da.

Euskal kulturak bizirik iraun du mende askoan. Inguruko baldintzen arabera egokitzen eta berritzen jakin duelako gertatu da hori, zalantzarik gabe. Dena dela, egungo globalizazio-prozesuak ez die mesederik egiten kultura gutxituei edota gutxiengoen kulturei; beraz, euskal kulturak denbora luzean iraun dezan nahi badugu, erronka honi aurre egin behar diogu: euskal kultura eta historia transmititzea, egokitzea eta biziberritzea bermatuko duten bitartekoak lortzeari.

Horregatik, unibertsalera bidean, baina partikularra ondo ezagutzeko, hartu dut abiapuntu Larrabetzuko historia. Euskal Herriko herrietan egon zen, eta dagoen, ekonomia- kultura- eta gizarte-aberastasuna ezagutarazteko, hurbileko historiako gertaerak aztertu behar direla uste baitut.

1.- Proposamenaren testuingurua

Lana Batxilergoko 1. mailarako egina dago, **Euskal Herriko Historia** ikasten duten ikasleentzat, hain zuzen ere. Curriculumaren oinarriko gaitasunak kontuan hartuta egin da, eta, ikasgaiari dagokion programazioan, Erdi Aroan txertatzekoa litzateke.

Proiektu honetan, ikaslea ikertzaile bihurtuko da. Taldean, irakaslea lagun dutela, XIV. mendetik XVI.era bitarteko Larrabetzuko historiako gertaeren ikerketa egingo dute ikasleek; beharrezkoa duten informazioa bilduko dute eta eskema edo gidoi bat osatuko dute; horretarako, zenbait informazio-iturri erabiliko dituzte (behaketa, elkarrizketak, bibliografia, webguneak, etab.); ondoren, Prezi aplikazioa erabilita, garai horretako gertaera historikoetan oinarritutako aurkezpena egingo dute.

2.- Metodologia

Lan hau egiteko proiektuen bidezko metodologia erabiliko dut.

Diziplinarteko lan-proiektua ezagutzak uztartzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak antolatzeko modu bat da. Irakasleak gidaturiko talde txikietan garatzen da, eta ikaslea erdigune hartzen da era horretako irakaskuntzan. Horren helburua, ikasleen interesetatik, esperientzietatik eta ezagutzatik abian jarritako problematika bati edo proiektu bati erantzuna ematea da, era praktikoa, prozesua ixten duen emaitza baten bitartez.

Proiektutan oinarrituriko metodologia didaktika- eta ikerkuntza-eredu jakin bati dagokio; honako printzipio hauen arabera defini dezakegu ereduak:

- Irakasleak mundua ulertzeko eta bertan esku hartzeko gero eta eredu konplexuagoetara begiak zabal dituzan lortu nahi du.
- Inguruko ezagutza garatzen du, hainbat alorretako erreferentziak integratuz: diziplinazkoak, eguneroko bizimoduari dagozkionak eta gizarte- eta ingurumen-alorretako problematika eta ezagutza metadiziplinarra ere.
- "Ikaslearen ikerkuntza" delako ideian oinarrituriko metodologia sustatzen du.
- Ikaslearen rol aktiboa sustatzen du, hura baita bere ezagutzaren eraikitzaile eta "berreraikitzailea".
- Irakaslearen rol aktiboa sustatzen du, ikaslea berak eraikitzen eta berreraikitzen baitu bere ezagutza.
- Ikasleen ezagutzaren jarraipenari ez ezik, irakaslearen jarduerari eta proiektuaren garapenari ere heltzen die, batera.

- Prozesuei arreta sistematikoki ematen die, arian-arian lortzen diren ondorioetatik birformulazioak eginez.

- Ebaluazioa egiteko hainbat jarraipen-lanabes darabiltza: ikasleen produkzioak, irakaslearen egunkaria, era askotako oharra...

Lan honetan, Euskal Herriko Historiako, Teknologiako (burdinolen funtzionamendua), Euskarako (toponimia-lana) eta Plastikako (argazkilaritza eta marrazketa) curriculumetako arloak landu daitezke, besteak beste. Bestalde, proiektuen bidez ikasita, ikaslearen sormena, askatasuna, erantzukizuna eta iniziatiba indartzen dira.

3.-Helburuak

1. Gertaera sozialak bultzatzen dituzten prozesuak, eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harremanak ezagutzea; ondoren, ezaguera hori gaur egungo gizartearen bilakaera eragin duten zergatiak ulertzeko erabiltzea, gizarte horietan gizonezkoek eta emakumezkoek betetzen duten zeregina balioesteko eta haiek izaten dituzten arazo nagusiak zein diren ulertzeko. Horren guztiaren helburua Historiaren ikuspegi zabalaz eta kritikoaz jabetzea da.
2. Ingurune fisikoaren oinarritzko elementuak zenbait eskalatan ezagutzea, kokatzea eta aztertzea, elementu horien arteko harremana ulertzeko, giza taldeek espazioa eta hango baliabideak nola erabiltzen dituzten ulertzeko eta erabilera horiek eragiten dituzten ondorio ekonomiko, sozial, politiko eta ingurumenaren arlokoak balioesteko. Horren xedea eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko modua hobetzea da.
3. Euskal Herriarentzat garrantzitsuak izandako gertaera historikoen prozesuak denboran eta espazioan ezagutzea eta kokatzea; horri esker, Euskal Herria osatzen duten lurraldeen bilakaera historiko, sozial eta kulturala ikuspegi globaletik antolatu eta garatzea.
4. Hainbat iturritako informazioa zorrotasunez bilatzea, aukeratzea eta erlazionatzea; informazioa era askotakoa izan daiteke: hitzezkoa, grafikoa, ikonoen, estatistiken eta kartografiaren bidez emandakoa, ingurune fisikoak eta sozialak ematen duena, eta komunikabideek eta informazio- eta komunikazio-teknologiek ematen dutena.

4.- Edukiak

- Arloaren ikaskuntzarako hizkuntza-trebetasunak: testu idatzien eta ahozko testuen ulermena, berariazko hiztegiaren interpretazioa eta erabilera, ahoz eta idatziz behar bezala adieraztea, etab.
- Lehen eta bigarren mailako iturrietatik informazioa lortzeko, erregistratzeko eta tratatzeko jarraibideak
- Informazioa erregistratzeko eta tratatzeko teknikak
- Done Jakue bidea eta Europarekiko kultura-trukeak
- Erdi Aroaren hasieran Euskal Herriak zuen egoera lantzeko ikerketalana
- XIV. mendeko krisiaren eta bandoen arteko gerraren eraginari buruzko analisia
- Lortutako informazioa taldean idazteko jarraibideak
- Ingurunearen eta giza ekintzaren arteko harremanak aztertzekeo jarraibideak
- Erdi Aroko gizartea Larrabetzun: gizartea, ekonomia eta botere politikoa Europa feudalean
- Espazioa ezagutzeko eta aztertzekeo sentsibilitatea eta interesa, elementu fisikoen eta giza ekintzaren arteko elkarrekintzen adierazpentzat hartuta
- Iraganeko errealitate soziala nolakoa izan zen jakiteko interesa eta ikusmina
- Gure kultura-ondarea eta gure ondare historiko eta artistikoa balioetsita, hori guztia errespetatuz eta horrekin guztiarekin gozatuz, hori zaintzearen, defendatzearen eta jakinaraztearen aldeko jarrera

- Gizarte guztietako arte- eta kultura-adierazpenak balioesteko eta errespetatzeko jarrera

5.-Landuko diren gaitasunak

Berariazko gaitasunak

- Denboran zehar gertatutako aldaketa sozio-historikoak identifikatzeko jarduerak ikastea.
- Egungo gizartean erro historikoetara hurbiltzeko jarraibideak erabiltzea.
- Antzinako leku- eta denbora- testuingurua zehaztea.
- Aztergai den eremua gure iraganeko ekonomian eta gizartean oso garrantzitsua izan zela balioestea.
- Iraganeko bizimoduak deskribatzea.

Gaitasun orokorrak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

- Kontzeptuen ezagutza eta erabilera: lurraldea, artea, ohiturak, sinesmenak eta berdintasuna
- Denboran zehar eta hainbat gizarte- eta kultura-esparrutan hizkuntzaren aldakortasuna eta komunikazio-moduak behatzeko proposamenak.

Kulturarako eta Arterako gaitasuna

- Ingurunean arte eta kulturaren arteko loturak aurkitzeko jarduerak.
- Inguruneko kultura-ezaugarri adierazgarriak ezagutzeko jarduerak (ohiturak, bizimoduak, festak, etab.).

Matematika-gaitasuna

- Ikerketa, neurketa eta irudikapen historikoko elementuen erabilerarekin lotutako jarduerak, eta neurketa kronologikoaren elementu nagusien ezagutza.

Gaitasun digitala eta informazioaren trataerarako

- Informazioa bilatzea, lortzea eta prozesatzea (datu eta kontzeptu garrantzitsuak antolatzea eta bereiztea).
- Historiari, gizarteari, lurraldeari, kulturari, arteari eta abarrei buruzko informazioa lortzea, berreskuratzea, ebaluatzea, biltzea, ekoiztea, aurkeztea eta trukitzea, multimedia-jarduerak erabiliz.
- Baliabide egokiak identifikatzea eta erabiltzea: aurkezpenak, ardatz-kronologikoak, organigramak, grafikoak eta taulak.
- Informazio konplexua Prezi aplikazioaren bidez aurkeztea.

Ikasten ikasteko gaitasuna

- Gizarte- eta komunikazio-trebetasunak garatzeko jarduerak. Mota eta eduki askotako testuak irakurtzea eta ulertzea, elkarrizketak egitea, argazkiak egitea.
- Museoetara, erakusketetara, topaketetara, agiritegietara eta hemerroteketara bisitak egitea.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

- Taldean pentsatzen, erabakitzen eta inguruko arazoak konpontzen ikastea.

6.- Ebaluazio-irizpideak

- Ea informazio-iturriak zuzen hautatzen dituen gai jakin bat landu behar duenean (bibliografia, fitxategiak, estatistika-iturriak...), eta, horietan, informazio egokia lortzen duen.
- Ea laburpenak, eskemak, argazkiak eta abar erabiltzen dituen informazioa berrantolatzeko.
- Ea termino egokiak erabiltzen dituen eta egiten zaizkion galderei buruzko ondorioak azaltzen dituen.
- Ea hainbat iturritatik unitatean landutako garai historikoari buruzko informazioa lortu, prozesatu eta egoki komunikatzen duen.
- Ea historia ikertzeko metodoa, bere fase desberdin guztietan, ikerketa-proiektuetan aplikatzen duen —banaka edo taldean—, lehen edo bigarren mailako iturriez baliatuz.
- Ea gertakari historikoren baten kausak identifikatuta, erlazioak analizatu eta horietako batzuen garrantzia, nola ikuspegi garaikidetik hala historiografikoetatik balioesten duen.

7.- Jarduerak

a.- Planifikazioa eta motibazioa

1. Ikasleei honako galdera sorta hau eskainiko zaie, beren inguruaz hausnartu dezaten:

Nondik gatoz?

Non bizi gara?

Nola bizi izan ziren gure arbasoak?

Nolako antolakuntza zuten?

Zein ziren espazioa antolatzeko moduak?

Zergatik sortzen dira hiribilduak?

Hiribildua sortu aurretik, nolakoa zen Larrabetzu?

Zein zen errekaen garrantzia Erdi Aroan?

Zein da burdinolen eta erroten egoera ekonomikoa garai horretan?

Badakizue noiz sortu zen zuen herria?

Noiz sortu ziren Euskal Herriko hiri eta herri garrantzitsuenak?

Herriak ez dira denak garai edota mende berekoak, baina Euskal Herriko herri asko Erdi Aroan sortu ziren. Gaur egun, hainbat lekutan, Erdi Aroko jaiak edota azokak ospatzen dira. Izan zarete inoiz horrelako batean?

2. Ikasleek haien ezagutzak eta interesak kontuan hartuta, galdera horietako lau aukeratuko dituzte haien proiektua garatzeko.

b.- Gauzatzea

1.- Informazioa bilatzen eta aukeratzeko

Lehenengo pausoak hauexek izango dira: taldeak egin, landuko duten atala aukeratu (baselizak, hiribilduak, leinuak, erreka eta burdinolak) eta informazio-iturriak erabili eta aztertu (webguneak, testuak, mapak...).

Horretarako webgune lagungarri batzuk izango dituzte:

- Baselizak

http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPTO4/Temas/Patrimonio_Cultural/Jornadas%20Europeas%202009/Uribe/Uribe.pdf?idioma=CA

<http://ermitasdevizcaya.com/>

<http://lurraldea.blogspot.com.es/2013/02/san-salvador-de-zarandoas-larrabetzu.html>

<http://www.arteguias.com/vizcaya.htm>

Honako helbide honetan, baselizen inguruko ikerketa egiteko galdetegia aurkituko dute:

<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/munibe/1953051056.pdf>

- Hiribilduak

<http://www.hiru.com/historia/hiribilduen-sorrera>

<http://www.hiru.com/arte/patrimonio-cultural/hiribilduak/Larrabetzu>

<http://www.bilbaoturismo.net/BilbaoTurismo/eu/villas-medievales?pagina=2>

<http://www.ugao-miraballes.net/es-ES/Documents/XI%20MARRAZKI%20LEHIAKETA-informazio%20dosierra.pdf>

http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/atlas_vasconia/biz/eu/03210356eu.pdf

<http://www.hiribilduak.net/>

- Errekaren ibilbidea, burdinolak eta errotak

<http://www.hiru.com/historia/historia-de-la-siderurgia-vasca>

<http://prezi.com/vf6xojmllvvt/urkulu-errota/>

<http://eu.wikipedia.org/wiki/Burdinola>

<https://sites.google.com/site/burdinolak/>

http://fluidos.eia.edu.co/hidraulica/articulos/historia/acueductos_antiguos/Edad%20media.htm

- Leinuak

<http://www.banderizoak.net/gerratea.html>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Leinu_gerrak

<http://www.hiru.com/historia/leinuen-arteko-borrokak>

<http://www.aikor.com/artikulua/985>

<http://www.aikor.com/artikulua/1018?actual=0&items=10&cat=8>

2.- Materiala bilatzen

Ikasleek honako eginkizun hauek izango dituzte: Internetetik informazioa jaso, herriko jendeari (senideei, herriko adituei, pertsona nagusiei...) elkarrizketak eta argazkiak egin, herriko mapak eta planoak lortu udaletxera joanda, eta abar.

3.- Materiala aukeratzen

Lortutako material guztiaren artean, zer erabiliko dugun zehaztu behar da, material horren kalitatea eta garrantzia kontuan izanda.

4.- Testuak sortzen

Prezi aplikazioaren erabilerarako egokia den testu-moldea aldeaz-aurretik landuta izango dute.

c.- Erabiltzea

Ikasleek banan-banan ahoz azalduko dute taldean landutako atala; gero, taldekideen lanak elkartu, eta lan osoa Prezin aurkezteko prestatuko dute; ikasle bakoitzak Prezi aurkezpen bat egingo du.

8.- Prezi aplikazioa: erabilera didaktikoa

Material berria sortzerakoan, teknologia berriak kontuan izan behar ditugu. Haien erabilerak ikasleen motibazioa areagotzen du, zalantzarik gabe. Prezi aplikazioak, hain zuzen ere, ikastea lan praktikoa eta dinamikoa izatea dakar berekin. Ikasleek Prezin txertatuko dituzte egindako argazkiak, elkarrizketak, bideoak, testuak, etab.

Honako esteka honek Preziren erabilera didaktikoa azaltzen du:

<http://prezi.com/qujlu0lnlxf2/preziren-erabilera-didaktikoa/>

Horrez gain, Prezik testu laburrak erabiltzeko aukera ematen du. Bestalde, argazkiak eta bideoak testuarekin batera erants daitezke; osotasunean eta zatika ikus daiteke aurkezpena; laburtzeko gaitasuna indartu, eta sekuentzien logika garatzen du aplikazio horren erabilerak; irudimenerako aukera eta antolamendurako askatasuna ematen du; eta, azkenik, hezkuntzarako dohainik eta on-line dago.

9.- Bibliografia

BARTUREN, Javier: *Larrabetzu: historia eta arte ondarea*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1993.

ARANA, Sabin: *Urkulu, ola eta errota baino gehiago*, Arrekikili kultur elkarte, Larrabetzu, 2003.

ESPARZA, Jose Mari: *Mapas para una nación*, Txalaparta, Tafalla, 2011.

ANTZUOLA HERRI IKASTETXEKO IRAKASLEAK: *Ikastea eta egitea proiektuen bidez*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Nagusia, Vitoria-Gasteiz, 2003.

ARIZAGA, Beatriz; MARTINEZ, Sergio: *Euskal Herriko Erdi Aroko Hiribilduen Atlas. Bizkaia*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2006 .

IKERMAP IBAETA SL.: *Larrabetzuko mapa*, Larrabetzuko udala, Larrabetzu, 2013.